

Familia ereduak gaurko eskolan

Lucía Aguado Iribarren

laotsola@yahoo.es
Lehen Hezkuntzako Irakaslea
Atargi ikastetxea

GAKO-HITZAK: Familia ereduak. Eskola inklusiboa. Hezkuntza komunitatea. Ezkutuko kurrikuluma. Bizi-zikloa.

Familia ereduaren aniztasunaren iraultza errealitate nabarmena izan arren, sarri askotan eguneroko bilakaeran ez dugu aipatzen, ezta kontuan hartzen ere.

Irakasleok ikasle talde berri batekin lanean hasten garenean, haien ezaugarri nagusiak ezagutzeko beharra izaten dugu hainbat arlotan, hots: arlo emozional-afektiboan, intelektualean, harremanak izateko eran, arlo akademikoan, eta abarretan. Baina hezkuntzaren eremuan beharrezkoa dugu testuinguru soziala ezagutzea, eta testuinguru horretan umearen eremu familiarra elementu garrantzitsuena da.

Jorratu nahi dugun gaiarekin hasi baino lehen, bi zutabetan oinarritzen garela garbi utzi nahi dugu: lehenengoa, familia hezkuntza eremu inportanteena izanik, eskolaren eta familiarren arteko elkar ezagutza, lan-kidetza eta konplizitatea ezinbestekoak dira. Bigarren oinarria bi instituzioen aldakortasunarekin lotuta dago, gaur egungo familia eta eskolaren ezaugarriak, beharrak eta elkar lanaren estrategiak etengabe berritzen ari dira eta.


Artikulu honen helburu nagusia gaur egungo familia ereduari buruzko hezitzaileen eta familien ezagutza, hausnarketa eta eztabaida bultzatzea da. Prozesu hauek eremu ezberdinetan landu beharko lirateke, eskolan batez ere, umeekin gaiaren garapen akademiko zehatza egin baino lehen.

Artikulu honetan idatzitako ondorioak, *Familia ereduak eta hezkuntza* (Aguado, 2008) ikerlanean sakontasun gehiagoz aztertu daitezke. Lan horretan hemen jorratutako gaiak eta beraiekin lotura duten beste batzuk daude.

1. ALDAKETA SOZIOLOGIKOEN ERAGINA FAMILIA EREDUETAN

Azken hamarkadetan Espainiar estatuan gertatutako aldaketa sozialek eragina izan dute gaur egungo familiaren ezaugarrietan eta bilakaeran, eta hauek familia ereduen aniztasunean ere argi eta garbi islatzen dira. 1978ko Konstituzioak eta 1981eko Kode Zibilak familien arteko harremanak ikaragarri aldatu zituzten, emakumeen eta gizonen arteko parekotasuna islatuz. Alberdik (1999) azpimarratzen duen bezala, gaur egungo familiaren askatasunak eta ongizateak, lehenagoko familiaren biziraupena eta zentzua ordezkatu dituzte. Aldaketa nagusien artean honako hauek azpimarra ditzakegu:


1. Maitasuna eta bikote harreman berriak, non konpromiso emozionala eta malgutasuna beharrezkoak diren. Hori dela eta, ezkontza kopuruak beherakada izan du azken hogeita bost urteotan, gero eta bikote gehiago bizi delako elkarrekin ezkondu gabe (eskubideak mantenduz), eta sexu berekoen arteko harremanak gero eta gehiago onartzen direlako. Horretaz gain, dibortzioen kopurua handitu egin da; beraz, esan daiteke gaur egungo harremanak atseginagoak diren arren, zailagoa dela denboran irautea.



1. irudia


Familia hausturak: dibortzio eta bereizketa kopuruak

2. Balore jakin batzuk, hala nola patriarkatua, gizonaren autoritatea, emakumeen mendetasuna eta aitarekiko gazteen mendetasuna, aldatu egin dira pixkanaka, askatasuna, autonomia eta negoziazioaren aldeko filosofiaren truke. Horrekin lotuta, emakumeen lana etxetik kanpora zabaldu da eta etxeko lanen eta seme-alaben ardura bien artean banatzen ari da gero eta gehiago, nahiz eta aldaketa mantsoa izan.
 3. Bizi itxaropenaren igoerak, jaiotza tasaren jaitsierak eta seme-alabak izateko adinaren atzerapenak familiaren harremanak baldintzatzen dituzte. Gero eta familia gehiago izan arren, txikiagoak izaten dira eta ezaugarri ezberdin eta anitzagoak dituzte. Azken hamarkadan gehien ugaltu den familia mota gurasobakarra izan da. Familia ugarien kopuruak, berriz, jaitsiera nabarmena izan dute, batez ere lau seme-alaba edo gehiago dituztenenak.
- Espainiako *Instituto de Política Familiar* (2008) erakundeak aipatutako ezaugarriak islatu ditu grafikoki 2007ko familia garapenaren inguruko txostenean:



Iturria: Instituto de Política Familiar

2. irudia
Familiaren osaera



3. irudia

**Ugalkortasunaren garapena. Espainia/
Europako Batasuna15 (1981-2006)**

4. Ongizate Estatu bere gain hartzen joan da familiak lehen zituen hezkuntza, osasun eta zainketa eginkizunak, gizarte erakundeen bidez.

Aldaketa eta joera horiek Europan gertatutakoen antzekoak dira. Cearren arabera (2007), herrialdeen arteko aldeak lau ezaugarritan oinarritzen dira: a) ondare historiko eta kulturala; b) sekularizazioaren garapena, familiaren planifikazioan, morfologian, dibortzioan eta abarrearain eragin garbia duena; c) etxea eta lana uztartzen lagundu duten politika sozialak; d) mugimendu feministen indarra legedi aldaketa bultzatzerakoan.

2. FAMILIAREN KONTZEPTUA GAUR EGUN

Familiak mintzatzen garenean gertuko eta eguneroko errealitateaz aritzen garenez, erraz aztertzeke errealitatea izango dela iruditzen zaigu. Baina hori ez da horrela. Familiaren izaera konplexua, anitza eta dinamikoa izateaz gain, balioz eta aurreiritziz josita egoten da. Hori dela eta, errealitate horren azterketak sakontasun handiagoa eskatzen du.

Aurkitu ditugun definizio anitzen artean, *Familia eta giza garapena* liburuak ematen duena aukeratu dugu:

«(...) gure ustez honako hau izango litzateke kontzeptuaren muina: pertsona elkarketa. Hain zuzen pertsona horiek elkarrekiko bizitza-proiektu iraunkorra izatea nahi dute; kidesun-sentimendu sendoak sortzen dira eta kideen arteko konpromiso pertsonala dago eta, intimitate, elkarrekotasun-eta menpekotasun-harreman estuak sortzen dira» (Rodrigo eta Palacios, 2001).

Beraz, definizio horretan islatzen den kontzeptua zabala eta anitza da: ez-kontza ez da lotura bakarra, bereizketak eta beste familia bat eratzea askotan gertatzen dira, bi guraso edo guraso bakarreko familiak osatzen dira, eta seme-alaben kopurua jaisteaz gain, bide ezberdinetatik etor daitezke: adopzioa, laguntza bidezko ugalketa, lehenagoko harremanak, eta abar. Bestalde, gaur egungo familiaren definizioan etxe berean bizi ez direnek familia osa dezakete, familia osatzeko prozesuan dibortzioak, bigarren ezkontzak egon daitezke, eta familia homoparentalek gero eta presentzia handiagoa izaten ari dira.

Familiak betetzen dituen eginkizunei dagokienez, Toriok (2003) honako hauek azpimarratu ditu: a) zainketa eguneroko bizitzan; b) eginkizun afektibo eta emozionala; c) hezkuntza funtzioa; d) sozializatzeko funtzioa; e) babespen funtzioa; f) sexu eta ugalketa funtzioak; g) aisialdi funtzioa; h) erlijio funtzioa.

Gaur egun, familiaren kontzeptualizazio berriak betetzen dituen funtzioekin zerikusi handia du. Horretaz gain, testuinguru kulturalaren eta bere bizitza-etaparen arabera ere, holako edo halako ezaugarriak nagusituko dira. Adibidez, askotan gaur egungo aitak seme-alabez gehiago arduratzen dira, etxeko lanetan parte hartzen dute, eta diru-sarrerak aitak eta amak, biek, lortzen dituzte. Horretaz gain, kontuan izan behar da babes-, hezkuntza-, osasun- eta gizarte-zerbitzuek familiaren funtzioak betetzen laguntzen dutela.

Gerardo Meil-ek (2006) «familia negoziatzaile» deitzen dio gaur egungo familiari, kontzeptualizazio berri bat eta eguneroko bizitzako elkarbizitza-arau malguak kontutan hartuz. Gizartean islatzen diren banakako autonomia, askatasuna eta garapena familian ere agertzen dira. Hori dela eta, adostasun, komunikazio eta elkarrekiko errespetua oinarritzko balioak dira familiaren proiektu komunean. Familia negoziatzaileak (demokratiko ere deituak) harreman estua du gaur egungo familia egiturekin, pertsonen askatasunarekin eta familiaren proiektu komunarekin lotuta baitago.

3. FAMILIA-EREDU MOTAK

Orain arte familiaren inguruko aldaketa soziologikoak eta kontzeptualak aztertu ditugu. Gure hurrengo pausua familia mota horiei izena eta entitatea

ematea izango da, bakoitzaren oinarritzko ezaugarriak definituz. Zein helburrekin? Hezitzaileek eta gurasoek haien seme-alaben eta ikasleen errealitatea ulertzen laguntzeko, eta neurri eta tratamendu egokiagoak lortzeko.

Argitalpen honetan ezin izango dugu familia eredu horien aniztasuna zehaztu, ez konplexutasuna eta ezaugarri espezifikoak; baina zenbait alderdi kontutan hartuko ditugu hobeki ulertzeko eta lanean hasteko. Lehenengo, kontuan hartzea familia mota horiek guztiek ez dutela zerikusi handirik urteetan zehar ezagutu izan dugun familia tradizionalarekin. Horretaz gain, familia jakin batek eredu horietakoren bateko ezaugarri bat edo gehiago izan ditzake (adibidez gurasobakarreko familia adopzioa edo in-tseminazioa bidez, edo dibortzioa bidez sortu daiteke). Aniztasun hori *bizitza zikloan* zehar gertatzen diren aldaketekin lotzen badugu, are gehiago zabaltzen da aukera-sorta. Bestalde, azpimarratzekoa da familia etorkinak aniztasun iturri nabarmena direla, haien ezaugarri sozial eta kulturalak batzuetan diferentzia handiak dituztelako harrerako kulturarekiko.

Premisa horiek kontuan harturik, gaur egungo familia ereduaren sailkapen irekia aurkezten dugu.

1. *Familia hedatu edo konplexuak*

Familiaren barnean gune bat baino gehiago bereizten dira. Gero eta gutxiago diren arren, zenbait gunetan aurki daitezke gaur egun ere: etxerik gabeko bikote batzuek hasieran gurasoekin konpartitzen dute etxea; berezitu ondoren, bikotekide ohietako bat askotan gurasoen etxera bueltatzen da hasieran.

2. *Familia nuklear funtzionala*

Gurasoek eta seme-alabek osatzen dute, biologikoak edota adoptatuak izan. Urte askotan eredu tradizionala izan da, baina bai kopurua, bai ezaugarriak ere aldatzen ari dira. Lehenago, familia tradizionalan, bikoteak ezkondua egon behar zuen, lotura iraunkor bihurtuz. Seme-alabak biologikoak ziren. Rolei dagokienez, aitak etxetik kanpo lan egiten zuen dirua lortzeko; amak, berriz, seme-alaben eta etxearen ardurak hartzen zituen.

Gaur egungo familia nuklearretan gurasoak askotan ez daude ezkon-duta, eta erraz bereizten dira, familia berriak sortuz. Seme-alabak bide ezberdinetatik iristen dira (biologikoak, adoptatuak, aurreko harreman batekoak, eta abar). Eta rolen banaketa asko aldatu da, batez ere emakumeak etxetik kanpo lan egiteak harremanen konfigurazioa aldatu du.

3. *Gurasobakarreko familiak*

Guraso batek eta bere seme-alabek osatzen dute familia mota hau. Familia hauek hedatzearekin batera, gero eta anitzagoak dira. Kasu honetan ere ondorengoak bide ezberdinetatik etor daitezke. Familia hauek be-

tidanik izan dira, forma desberdinak hartuta, eta gehienetan gutxi errespetatuak: alarguntasunaren ondorioz, seme-alabak ezkontzatik kanpo izanik, bereizketen ondorioz, eta abar. Horiei «familia hautsi edo desegin» deitzen zitzaien, anomia-arenpean bizi ez zirenean, izan ere izango ez balira bezala.

Gure inguruan familia nuklear asko gurasobakarrekoak ziren errealitatean, gurasoetako batek ardura osoa edo gehiena hartzen baitzuen: euskal bale arrantzaleak, Bardeetako artzainak, Nafarroako almadieroak, gudan zeudenen emazteak, eta abar. Gaur egun ere *izatezko familia nuklear* asko, eguneroko bizitzan gehienetan emakumeek ateratzen dituzte aurrera, batez ere umeen hezkuntzaz, zainketaz eta etxeko lanaz arduratzen direlako.

Normalean muga ekonomiko gehiago izaten dituzte, baino horrek ez du esan nahi arazo psikosozialik dakartenik. Gainera, familia horien funtzionamendua bestelako alderdietan oinarritzen da, besteak beste: guraso dibortziatuen arteko gatazka, haien oreka psikologikoa, gurasoekiko harremanak, umeen adina, lagunen edo familia hedatuaren laguntza, eta abar.

4. *Izatezko bikoteak*

Azken urteotan ugaldu egin dira, eta horrekin batera balorazio sozial eta juridikoa irabazi dute.

Azken urteetan *LAT (Living-Apart-Together)* harremanak gora egin dute. Horien ezaugarri nagusia da etxe ezberdinetan bizi arren, bikoteki-deek bikote iraunkorra osatzen dutela.

5. *Seme-alabarik gabeko guneak*

Gorantz doaz. Alde batetik pertsona askok seme-alabarik ez izatea erabakitzen du. Bestetik, gazteak gurasoen etxetik ateratzea erabakitzen dutenean, oraindik gazteak dira eta elkarrekin bizitzeko urte asko geratzen zaie.

6. *Pertsona bakarreko guneak*

Atal honetan pertsona dibortziatuak, berezituak, ezkongabeak eta alar-gunak sartzen dira. Azpimarratzekoa da gehienetan bakardadea aukeratua izan dela. Carmen Alborch-ek (1999) dio bakarrik bizi izateko aukera gaur egun posiblea dela independentzia ekonomikoagatik, sexu harremanetan izandako aldetengatik, eta pertsonen arteko harremanetako malgutasunari esker.

Kontuan hartu behar dugu gero eta adineko pertsona gehiago bizi dela bakarrik. Horien independentzia-maila handitu egin da nork bere pentsioa izatearen, eta laguntza mediku eta sozialen ondorioz.

7. Familia berreraikiak

Ezkonduak edo ezkongabeko bikoteak osatzen dituzte. Bikotekide batek, gutxienez, seme-alabaren bat izan zuen aldez aurretiko beste harremanen batean. Laburbilduz, familia-mota honetako partaideak aita, ama, anaiordeak, arrebaordeak edota anai-arrebak izan daitezke.

Familia mota hau gero eta ugariagoa izanik, gizonak emakumeek baino joera handiago dute osatzeko. Berezitu ondoren emakume gehienek joera gurasobakarreko familia osatzea izan ohi da, hau da, ama bere seme-alabekin.

Ezaugarri aipagarrienak dira partaideen harremanen arteko konplexutasuna, eta bakoitzaren bizipenen integrazioa familiaren dinamikan. Gune berri bat osatzen denean, bizitzeko ohiturak, aukerak eta mugak eztabai-datu eta adostu behar dira eguneroko elkarbizitza guztientzako atsegina izan dadin. Dena den, faktore horiek ez dute derrigorrez arazo psikologikorik edota jokabidezkorik eragiten, askotan pentsatzen den moduan. Arazo horiek izatekotan lotura handiagoa izaten dute egoera sozial zehatz batzuekin familia motarekin baino. Beraz, lotura genetikoak baino garrantzitsua- goak dira, besteak beste, umearen adina aldaketa gertatu zenean, gurasoen arteko harreman eta inplikazioak eta arazoei aurre egiteko erak. Holako eredu batean murgildu aurretik ezinbestekoa da bikotearen harremana sendoa izatea, noski, familia berriaren integrazio prozesuan arazoak sortzen badira, indar komunekin aurre egiteko.

Beste ezaugarri garrantzitsu bat partaide batzuen arteko harremanen «anomia» da. Adibidez, nola deitzen diote aita baten seme-alabek bere aitak orain duen emakume bikotekideari? Ildo horretatik segika, aipagarria da ume elebidun edo eremu elebidunetan bizi direnen nahastu gabe beste aita edo ama izendatzeko duten gaitasuna. Hots, eremu euskaldun/elebidun batean bizi den umeak gurasoei «aita», «ama» edota «papá», «mamá», deitzeko aukera dauka.

8. Adopzio-familiak

Familia hauetan ere aniztasuna bide ezberdinetatik dator: alde bate-tik adoptatzaile eta adoptatuen ezaugarriak daude; bestetik, parte-hartzai-leek dituzten motibazioak, horien guztien artean sortzen diren harreman-ak ahaztu gabe. Gurasoekiko lotura genetikorik ez dagoen arren, haurrak ekartzeko nahia handia izaten da, hamaika tramite administratibo gain-ditu ondoren eta, sarritan, urte luzez ugalketa tratamenduak pasa eta gero. Adopzio prozesuak oso luzeak izaten dira. Erabakia hartu ondoren, eta *egokitasun egiaztagiria* eman baino lehen, aztertu egiten da adoptatzailearen edo bikotearen egoera. Izapide burokratikoak eta itxaropen garaia pasatu ondoren, gurasoak umearen bila joaten dira. Orduan hasten da elkar ezagutu eta onartzeko garaia, familian eta etxean behar diren egokitzape-nak eginez.

Palaciosek eta Morenok (2001) diotenaren arabera, une horretatik aurrera adopzio-familiatan prozesu oso espezifikoak jartzen dira martxan: alde batetik, familia-kide izatearen zentzua, pertsona berri bat iristen denean. Bestetik, gurasoek gaia umearekin jorrazteko moldea: zer eta noiz kontaktzen dioten bere aurreko bizitzaz. Informazio hori umearen garapena kontuan hartuz eman behar da, nerabezaroa garai berezia dela jakinaren gainean egonik. Eta beste prozesu garrantzitsu bat familiaren auto-pertzepzioarekin lotuta dago. Pertzepzio horrek ondorioak izan ditzake adoptatutako umearikiko harremanean, eguneroko bizitzan eta lotura sozialetan.

Zailtasunen sorrera gurasoentzako itxaropenen desegokien, egoera gatazkatsuei aurre egiteko arazoan, komunikazio ezaren, maitasuna azaltzeko mugen eta laguntza sozial eta profesional ezaren eskutik etortzen dira.

Bukatzeko, arazo psikologikoak sor ditzaketen baldintza batzuk aipatu nahi genituzke: a) umearen adina, adoptatua izan zenean eta unean unekoa; b) adopzioaren aurretik izandako esperientziak; c) instituzionalizazioaren iraupena; d) umearekin komunikatzeko era, bere historiaren berri ez emateak arazo larriak ekar diezazkiokeelako; eta e) bai gurasoek eta bai umek ere krisialdi garaietan laguntza izateko aukerak.

9. *Harrera-familiak*

Familia hauek umeak bere gunean babesten dituzte, behin-behinekoz edo era iraunkorrean. Bitartean, Gizarte Zerbitzuek guraso biologikoek haien arazoak konpontzeko lanean aritzen dira. Horrela, abandonatuak, tratu txarrak izan dituzten umeak edo une puntualetan laguntza behar dutenak, familia orekatu batean bizi daitezke, instituzionalizazioa eta adopzioa planteatu gabe.

Egoeraren arabera, Espainiako legediak hainbat aukera eskaintzen ditu: harrera aurre-adoptiboak, familia zabalaren barnean (aitona-amonak, osaba-izebak, eta abar) edo beste batzuetan denborarekin guraso biologikoekin bueltatzeko aurreikuspena izaten da.

Familia biologikoetan nola-halako arazoak izaten ohi dira: hezkuntza maila oso baxua, langabezia, arazo psikologikoak, drogazaletasunak, tratu txarrak, eta abar. Harrera familiak mota ezberdinekoak dira, baina sarri askotan seme-alaba biologikoak dituzten bikoteak izaten dira. Familia horiek haurrak zaintzeko ardura eta hezitzeko gogoia eskaintzen dute. Umeei dagokienez, hasierako momentuetan arazo fisiko, psikologiko edota garapenekoak izaten dituzte. Baina denborarekin, beste familia batean bizi izateak gehienetan onurak ekartzen dizkie beren garapen fisiko, emozional, sozial, intelektualean, bai eta eskolako emaitzetan ere.

Aipagarriak dira gero eta gehiago zabaltzen ari diren *oporretako harrerak*. Beste herrialde batzuetako umeak (errusiarrak, ukrainarrak, Saharakoak, eta abar) uda eta eguberrietan guregana etortzen dira oporrak pasatzera. Batzuk umezurtegitik etortzen dira; beste batzuk, ordea, baliabide

gutxiko familietatik edota herrialdetik. Gobernuz Kanpoko Erakundeek kontaktuak erraztu eta tramitazioa egiten du, bai eta umearen egonaldiaren jarraipena, haurren eta familiaren egokitzapena baloratzuz. Aztertzeke dago harrera mota horrek familiaren kideengan eta umearengan duen eragina.

10. *Familia homoparentalak, sexu bereko pertsonen osatua*

Pertsonen joera sexuala gero eta agerikoagoa bihurtzen ari da. Familia homoparentalak onartzeko bide luzean gizarteak oraindik asko ibili beharra duen arren, aurrerapauso garrantzitsuak ikusi ditugu, nola eguneroko bizitzan, hala legedian ere. Familia homosexualen seme-alabak bikote heterosexual batekin eman ditu sarri askotan bizitzako lehenengo urteak. Beste batzuetan, ezkongabeko emakumeek izan dituzte, edo seme-alabak izatea erabaki duen bikote homosexualak, hainbat bidetara jo dute: adopzioa, intseminazioa emaile batek lagunduta, autointseminazioa lagun baten esperma erabiliz edo gizezkoekin sexu harremanak izanik.

Familia hauen aniztasuna ere oinarrizko ezaugarria da: nuklearrak, gurasobakarrekoak, berreraikiak edota zabalak izan daitezke.

Familia gune hauek oso egokiak izan daitezke, eta jende askoren ustearen kontra, umeak psikologikoki eta emozionalki primeran garatu daitezke. Benetan mingarria da gizartearen aurreiritziak eta familia horiekiko tolerantzia eza eta jarrerak. Aurreiritzi horiek inolako oinarri zientifikorik ez duten arren, eguneroko bizitzan, eskolan, administrazioan eta zenbait proiektu aurrera eramateko orduan (adopzioa adibidez), ikaragarriko eragina izan dezakete.

Ildo honetatik, aipatzekoa da Sevillako Unibertsitatea eta Madrilgo Psikologoen Elkargoa egiten ari diren ikerketa, Espainian aitzindaria, *Ume eta Nerabeak Familia Homoparentaletan* izenekoa (González, 2005). Ateratako emaitzen artean honako hauek nabarmentzen dira: a) familia hauek umearen hezkuntzarekin eta garapenarekin konprometituta daude; b) komunikazioa eta maitasun-transmisioa onak ohi dira; c) familia horien oinarrizko balioen artean aniztasunarekiko errespetua eta tolerantzia izaten dira; d) seme-alaben garapen sozial, akademiko eta emozionala orekatua da, eta e) gaur egun dauden eragile sozial anitzek, hots, lagunek, senideek, eskolak, telebistak eta abarrek, patroiz eta eredu ezberdinak garatzeko aukera errazten dute.

11. *Ugalketa lagunduaren bidez jaiotako umeen familiak: intseminazioa, in vitro ernalketa*

Hasi baino lehen, nabarmendu behar da ohikoa eta gero eta arruntagoa den arren, izenik gabeko errealtatea dela. Normalean, gurasoetako batek ez du seme-alabarekin lotura genetikorik eta beste pertsona ezezaguna iza-

ten da. Egoera hori sarri askotan ezkutuan gordetzen saiatzen da eta Golombok-ek (2006) ikertu duenaren arabera, ezkutukeria horrek komunikazio arazoak eta tentsioak ekar ditzake. Baliteke horrexek azaltzea horren ikerketa gutxi egin izatea gaiari buruz. Golombokek ateratako beste ondorio garrantzitsu batzuk hauexek dira: seme-alabak izateko nahia oso handia denean, lotura genetikoak ez du harremana kaltetzen; ume horiek ez dute arazo psikologiko espezifikorik eta, are gehiago, esan daiteke guraso horiek gehiago eragiten diotela askotan elkarri, beharbada asko itxaron ondoren inplikazioa nabarmenagoa delako.

Ikertzeko esparru zabala geratzen da, batez ere zortzi urte baino gehiago duten umeen, une horretan nerabeek dituzten identitate garapenaren eta gurasoekiko harremanen inguruan.

12. *Subrogazioaren bidez sortutako familiak*

Emakume batek beste pertsona batentzako seme-alabaren bat izaten duenean subrogazioz mintzatzen gara. Hiru motatakoa izan daiteke:

- a) Subrogazio partziala: eskaera egiten duen aitaren hazia eta ordezkotza amaren obulua erabiltzen dira.
- b) Osoko subrogazioa: bai obulua, bai hazia, eskaera egin duten gurasoenak dira.
- c) Emailearen bidez: emailearen bati sor zaio obulu edota hazia.

Gaur egun eredu horretan aurki daitezkeen arazorik garrantzitsuena esplotazioa da, presioen bidez edo arrazoi ekonomikoengatik.

Ikertuta arloan ez dago emaitzarik jakiteko egoera horiek zer nolako eragina izan dezaketen seme-alabengan. Interesgarria litzateke aztertzea zer eragina duen umearen garapen orokorrean bere sorreraren berri izateak edota ordezkotza ama ezagutzeak.

13. *Etorkinen familia aniztasuna*

Etorkinen kulturak, ohiturak, eta eskubide eta betebeharren banaketa harrigarriak izan daitezke harrerako kulturaren. Adibidez, Afrikan arrunta den poligamiaren kontzeptua hemen oinarritzko eskubideen kontra egon daiteke.

Azken urteetako migrazio mugimenduek asko aldarazi dute familien konfigurazioa. Askotan gurasoak (biak edo horietako bat) bere herrialdetik atera dira bizimodu hobearen bila, seme-alabak familia zabalaren ardura pean utzita. Mugimendu horretan hasierako familia hautsi eta beste batzuk sortzen dira: gurasobakarrekota, pertsona bakarrekota... Horretaz gain, familia zabalak garrantzia har dezake aitona-amonak edota osaba-izebak bertan geratzen diren umez arduratzen badira. Hori dela eta, partaideen rola eta eginkizunak ikaragarri aldatu daitezke, behin behineko egoera izan

arren. Rodríguez-ek (2008) *Educar desde el locutorio* liburuan azaltzen duen moduan, gurasoen migrazioak seme-alaben hezkuntza aldatzen du, familien partaideen arteko harremanak baldintzatuz.

Beraz, familia ereduak lotura estua dauka kultur identitatearekin.

4. ONDORIOAK HEZKUNTZAN: ESKOLARAKO PROPOSAMENAK

4.1. Hasierako hausnarketa batzuk

Familiarena gai unibertsala den arren, egunerokotasunean garatzen da, aldaketa soziokulturalekin batera. Baina erakundeei, hain zuzen eskolari, zaila egiten zaio familiaren eguneroko erronka berriei aurre egitea, gai konplexua eta ideologikoki anitza delako.

Familiaren gaia eskolan jorratzen den gehienetan, gune nuklearraren ereditik egin ohi da. Sarri askotan beste ereduak ez dira agertzen eta, aipatzen direnean, okerrak edota arazodunak bailiran tratatzen dira. Gaur egun gero eta ume gehiago familia mota ezberdinetako partaide direnez, garrantzitsua da haien garapen psikologikorako egoera anitz horiek normalizat hartzea eta naturaltasunez horietaz mintzatzea. Familia-eredu ezberdinetan bizi izateak edota eredu horiek inguruan izateak eragina izaten duenez familia kontzeptuaren umeen eraikuntzan, eskolak hausnarketa egin behar du horren inguruan. Hausnartu, baina, zeri buruz? Hasteko, gaur egungo familiaren konfigurazioaz, baloreaz eta funtzioaz; ekonomiaren, lanaren eta denboraren antolaketaz; familia zabalarekiko harremanaz, eta abarrez. Gai horien inguruan hausnartzen eta eztabaidatzen ez bada, *ezkutuko curriculumean* jarraituko dute, eta erakutsiko ditugun ereduak ez diete erantzungo gaur egungo beharrei.

Bestalde, aldaketa horiek barneratzen joateko beharrezkoa da erakunde sozialekin elkarrizketarako oinarritzko esparruak izatea, bereziki eskolarekin. Sarri askotan eskolak badaki aldarazi egin behar duela familiaren kontzeptualizazio berriak, baino ez daki nola, nondik hasi, zein laguntza dituen edo perspektiba berriak nola sistematizatu. Hori dela-eta, eskolak bat-bateko erantzun sinpleak ematen ditu egoera konplexuen aurrean, ekintza sistematikoak eta egokituak garatu ordez.

Bukatzeko, familia eta eskola behar hauetaz kontziente egin ondoren, lan bateratua planteatu beharko lukete, haien funtzio sozial eta hezkuntza-koak batera eramateko, hezkuntza komunitatearen bidez. Beraz, egokiena familiaren eta eskolaren arteko *hezkuntza proiektu komuna* izatea litzateke. Horrela, hausnarketa elkarren eta batera egiteaz gain, hezkuntza erantzun adostuak emango lituzkete familia eredu berriak ulertzeko eta errespetatzeko.

4.2. Lanerako neurri zehatzak

Familia ereduaren aniztasuna eta aldaketaren abiadura kontuan harturik, eskolaren erantzuteko premia begi bistan dago. Ezagutza eta eztabaida, onarpena eta errespetua lortzeko aurrerapausoak dira. Eskola inklusiboak ingurumen-aldagai ugari hartu behar ditu kontuan, antolaketa eta metodologian aldaketak egin baino lehen. *Beraz, ez dago eskola inklusiborik familia-aniztasunik gabe.* Eta gaia garatzeko Eskolako Hezkuntza Proiektuaren partaide guztiak onartuak eta aktiboak sentitu beharko dute.

Hurrengo lerroaldetan martxan jarri daitezkeen neurri zehatzak deskribatuko ditugu:

1. *Lanerako plan sistematizatuak eta prebentzio neurri batzuk sortu eta erabiltzea.* Horretarako oso garrantzitsuak dira *protokoloak eta lanerako gidak*, bai irakasleentzako, bai bestelako hezitzaileentzako. Gida horiek osatu eta argitaratzeko laguntza emango lieke familiei, eta ezagupen eta praktikaerako jarraibideak irakasleei. Material horiek familiaren gaia ikuspuntu zabal batetik jorratzeko aukera emango lukete, bai eta une kritikoetan umeentzat prebentzio lagungarri gisa erabiltzekoa. Material horiek gero eta gehiago ari dira zabaltzen familia adoptatzaileen artean. Horren adibide da Agintzari kooperatibak Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz argitaratutako *Adoptia Gida. Hezkuntza klabeak (2006)*. Lan hori postadoptzioaren une zailean guraso, hezitzaile eta eragile sozialen arteko sentsibilizazioa, elkarrizketa eta orientazioa bultzatzeko oinarritzko helburuarekin jaio zen. Adoptatutako neska-mutikoen gizartean eta eskolan ere egunero dituzten zailtasunak behin diagnostikatuta, aurre egiteko hezkuntza klabe batzuk proposatzen ditu.

Material horiek lagungarri izanzen lirateke familia mota ezezagun bazuentzat (berreraikiak, homoparentalak, subrogatuak, eta abar).

2. *Ume bakoitzaren garapenean, irakasleen lanak duen eragina baloratzea.* Umearen egoera ulertzeko eta lagundu ahal izateko ezinbestekoa da irakasleek familiaren oinarritzko funtzionamendua ezagutzea, batez ere tutoreak. Eskolaren testuinguruan eta familiarekin harremanak izanik, hona jarrian horren aniztasuna lantzeko neurri zehatz batzuk:

- a) Ikasle bakoitzaren familia-egoera ezagutu eta berarekin komunikazio arina izatea (informazioa trukatzeko, eskola garapenean jarraipena egiteko, etxeko lanak burutzeko, laneko estrategia komunak adosteko eta abar).
- b) Familiaren aniztasuna eta bere historia errespetatzea, bazterketa jarrikerak saihestuz.
- c) Familiari eta ikasleari krisi edota aldaketa garaian laguntzea (be-reizketa gertatzean, postadoptzio garaian, eta abar).

- d) Umeei familiaren aniztasuna ezagutarazi eta berarekiko sentsibilizazioa, gaia espezifikoki eta zeharka landuz.
- e) Eskolan garapenerako inguru segurua eta orekatua eskaintzea, arau garbi eta esplizituak jarritz.
- f) Beharrezkoa balitz, hezkuntza premia iraunkor edo iragankorreari erantzuteko neurriak ezartzea.
- g) Egindako aurrerapenak gogoratzea, arrakastaren pedagogia sustatuz.
- h) Sozializazioa eta elkartasuna bultzatzea.
- i) Beharrezkoa denean gurasoak Administrazioa bideratzea, Ongizate Zerbitzuetara, Osasun arlora, eta abarretara.
- j) Curriculamaren materiala egokitu eta dibertsifikatzea: testuliburuak, ipuinak, joko eta jostailuak, gelako dinamikak, artearekin lotutako adierazpenak (antzerkia, margoketa, eskulanak, eta abar) bisualizazioa eta gaiaren lanketa erraztu ditzatela.

3. *Familiaren eta eskolaren arteko lankidetzaren bultzatzea, bide ezberdinetatik:*

- a) Etxean eta eskolan gertatzen denaren inguruko informazioa trukatzeko, batez ere aldaketa edota krisi garaietan.
- b) Enpatia bultzatzea, bakoitzak hezkuntza paper hartara hurbiltzeko egiten duena ulertuz. Komunikazioa, konfiantza eta elkarren arteko aintzat hartzea izan beharko lirateke harreman horren oinarriak.
- c) Helburu eta estrategia komunak finkatzea, bakoitzaren eginbeharrak ongi zehaztuz.
- d) Beharrezkoa balitz, hezkuntza baliabide espezializatuen erabilpena eskuran jartzea.

4. *Programazioaren unitate didaktiko eta zeharkako arloaren bidez, familia aniztasunarekin zerikusia duten edukietan sakondu.* Eduki horiek lantzeko oinarria errespetua da, beraz familia eredu ezberdinen inguruko errealitateaz mintzatuko ginateke, epaitu eta deskalifikatu gabe. Bereziki garrantzitsua da lotura biologikoak ez direla emozionalak baino esanguratsukoak ulertaraztea. Horrekin lotuta, azpimarra dezagun familiak eratzeko eta antolatze molde ezberdinak eskolan islatzen direla, ume etorkin eta adoptatuen bidez.

Beste alde batetik, ezin dugu alde batera utzi *hezkidetzaren* curricula, bereziki materialetan, eta gurasoekiko eta instituzioekiko harremanetan hizkuntza sexista erabili gabe. Beraz, *afektibitatearekin eta sexualitatearekin* lotutako gaiek lotura sendoa izango dute familia aniztasuna lantzeko erabiltzen diren programazio eta unitate didaktikoekin.

Programazioak eta Unitate Didaktikoak aurrera eramateko «Familias diversas, familias felices» materialetan Bigarren Hezkuntzarako proposamen zehatzak agertzen dira.

Hori guztia lantzeko, ezinbestekoa dugu *denbora eta une zehatzak markatzea*: ikasleen eta gurasoen tutoretzan, zenbait arlotan, hots, Hiritar-tasunerako hezkuntzan, Ingurune arloan...

5. *Material anitzak sortu edota erabiltzea, gaia perspektiba teorikoe-tatik ludikoetara eramateko aukera izateko: testuliburuak, ipuinak, filmak, kantikak, jostailuak, eta abar.* Azpimarratzekoa da *bisualizazioaren* beharra, umeek aniztasunaren errealitatea ikustea, testuliburutik, komunikabideeta-tik eta eskolako materialetatik hasita. Argitaletxeek gero eta hezkuntza-ma-terial gehiago proposatzen dituzte, eta hori laguntza ikaragarria izan dai-teke gaur egungo familiaren inguruko ezagutza eta balioen transmisioan. Aipagarriak dira material batzuk familia ereduaren gaia espezifikoki lantzen dituztelako:

- *A Fortiori* argitaletxeak «Familiaren aldeko ipuinak» bilduman (eus-karaz, gaztelaniaz, galizieraz eta katalanez) hainbat errealitate azal-tzen ditu, umeak beraiekin identifikatuak sentitu daitezten.
- *La Galera* argitaletxeak Txina, Ukraina, Etiopia, Errusia, Kolonbia eta Nepaletak datozen umeentzako ipuinak eskaintzen dizkigu.
- *Ekilikuak* argitaletxeak ere zenbait material prestatu ditu, eta hauek ere lau hizkuntzetan: horma-irudiak, jokoak, puzzleak. Horien ar-tean azpimarratzekoa da «Nor bizi da hemen?» maletatxoak; bertako jokoekin kulturartekotasuna, familia ereduak, rola, elbarritasuna, eta abar landu daitezke.
- *Elkar* argitaletxeak jokoak, puzzleak, kantikak, bideoak, plastikarako materialak, kartak, CDak, eta abar argitaratu ditu *Familiak Milako-lore* proiektuaren baitan, paperean eta formatu digitalean. Proiektu hori aurrera eramateko Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat el-karterekin batera aritu da: harrera eta adopzio taldeekin, gay eta les-biana taldeekin eta berezita dauden guraso elkarteekin.

Literatura oso lagungarria izan daiteke gaia beste modu batez jorra-tzeko, esate baterako, Lehen Hezkuntzako ikasleek ipuinak irakurriz, eta Bigarren Hezkuntzakoek bizitzaren kontakizunak. Literaturaren bidez lortu daitezkeen ikasketek errealitatearen eta fantasiaren bidezko zubiak eraiki ditzakete. Merkatuan gero eta eskaintza zabalagoa dago adin guztietarako.

Horretaz gain, egunetik egunera Curriculumaren eduki ugari familien errealitate ezberdinei egokitzeko beharra sentitzen dugu eskolan (zuhaitz genealogikoak, aniztasun kulturalako adierazpenak, eta abar).

6. *Estrategia didaktikoak eta metodologia ezberdinak martxan jartzea, gaia aberastasunez landu ahal izateko: talde-dinamikak, lankidetzak-ikas-kuntza, antzerkia, adierazpen plastikoa, teknologia berriak, eta abar.* Hez-kuntza ez formalaren bidez, bitarteko anitzak erabil daitezke: antzerkia, erakusketak, kanpaldiak, dokumentalak eta filmak, eztabaidak, eta abar.

Bitarteko dezente erabil daiteke hezkuntzaren antolaketan eta curriculum garatzerakoan. Beste batzuen artean, Tomellosoko CTROADIk (2009) argitaratutakoak baliabide ugari eskaintzen digu aniztasuna eta eskola inklusiboa aurrera eramateko. Horietako asko baliagarriak dira familien eredu-aniztasuna lantzeko.

7. *Gaiaren inguruko sentsibilizazioa, hausnarketa eta eztabaidak bultzatzea guraso eskola, tutoretza eta eskola-orientazioaren bidez.* Horrek seme-alaben eta ikasleen errealitatearen ezagutza hobetzeaz gain, behar psikologikoekin bat datozen portaerazko jarraibide egokiak ezartzea erraztuko luke.

8. *Baina irakasleak ezin dira bakarrik egon lan horren aurrean; eskolaren inguruak, hezkuntza administrazioek eta beste erakunde sozial batzuek beraiekin batera lan egin beharko lukete, posible balitz, sarean antolatuturik.* Flaker-ek (2005) azpimarratzen duen moduan, familia-politikaren eremuan hartzen diren neurriek beste arlo sozial batzuetan ere —eskolakoa barne—, ondorio garrantzitsuak izaten dute.

Estrategia zenbaitek behar horiei aurre egiten lagunduko lukete:

- a) Hezkuntzako legeria eta horren garapenak. Bere baitan gaiaren garrantzia islatzearekin batera, eskolak beharko lituzkeen baliabideak agertuko lirarteke. Beraz, familia-ereduen gaia Estatuaren curriculum ofizialetan, horien garapen autonomikoetan eta irakasleen lanean lagungarriak izan daitezke beste baliabide batzuetan: programazioetan, hezkuntza-estandarretan, curriculum-materialetan, eta abar.
- b) Gizarte-politikak martxan jartzea Administrazioarekin eta erakunde sozialekin batera (hezkuntzakoak, kulturalak, politikoak, judizialak, lanekoak, ludikoak, eta abar). Zein helbururekin? Alde batetik sentsibilizazioa eta eztabaida soziala bultzatzeko; bestetik, familia mota guztientzat eskubide berdintasuna lortu ahal izatekoa. Laguntza fiskalak edota zuzenak, lanaldiaren murrizketak eta eszedentziak seme-alabak zaintzeko, BEZaren murrizketa gaixo, ume edota mendekotasuna dutenentzat, eta abar. Bukatzeko, beharrezkoak dira lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeko politika eraginkorrak: lekuak haur eskoletan, eskoletan eta institutuetan; lanaldi trinkoak; eskola eta lan ordutegiaren egokitzapena, eta abar.
- c) Premiazkoa da eskolan diharduten hezkuntza-eragile eta -taldeek gaia jorratzea, zabaltzea eta orientabide zehatzak ematea, bai irakasleei, bai administrazioei, eta baita gurasoei ere. Erakunde horien artean aipatu beharrezkoak dira, Estatuako eta Autonomia Erkidegoen Ikas-Kontseiluak, eta, noski Ikastetxeetakoak, haien lana ezinbestekoa baita sentsibilizazioan eta eztabaidan.

- d) Beste herrialde batzuetan jarraitutako prozesuak eta izandako emaitzak aztertu eta zabaltzea, gurean neurriak hartu aurretik beste leku batzuetako ondorioak ezagutu ahal izateko.
- e) Oso garrantzitsua da ikastetxeak beste erakunde sozialekin eta inguruan dauden baliabideekin sarean lan egitea: Administrazioarekin, gizarte zerbitzuekin, kirol erakundeekin, zentro ludikoekin, parrokiekin, komunikabideekin, eta noski, beste ikastetxeekin.
- f) Irakasleen hasierako prestakuntza eta prestakuntza iraunkorra. Horrekin batera, lagungarria litzateke aholkulari espezializatuen laguntza eskolan bertan izatea. Hasierako prestakuntzaz unibertsitate-ikasketak arduratuko lirateke: Psikologia, Hezkuntza Zientziak, Gizarte Langintza, eta abar. Prestakuntza iraunkorrari erantzuteko hainbat bide daude, baina hemen irakasleen baliabide- edota laguntza-zentroetan ematen dena azpimarratu nahi dugu. Bertan ikastaroak, mintegiak, lan taldeak eta gai konkretuei buruzko aholkularitza eskaintzea komeni litzateke.
- g) Eskolan, irakasle eta gurasoen artean, ikerketa bultzatu eta zabaltzea, prestakuntza eta argitalpenen bidez. *Jarduneko saiakuntzak* eskolako errealitatearen ezagutza errazten du. Beraz, guztiz beharrezkoa da aldaketa sozialek hezkuntzan eta beste errealitate batzuetan dituzten ondorioak ikertzea eta eguneko egoerak eta errealitateak aztertzea, beharrak detektatzeko eta horien arabera lan eta prebentzio planak sortzeko. Martínezek (2007) bere gida metodologikoaren arabera, hezkuntza aldaketa esanguratsuak eragiteko eta sortzen diren antolaketa beharrei aurre egiteko, ezinbestekoa da beharrak identifikatzea eta diagnosi sistematikoak egitea. Eskaintzen dizkigun baliabideak oso lagungarriak izan daitezke eskolan bertan ikerlana bultzatzeko.

Familia-ereduen aniztasunak eta hezkuntzan dituen ondorioak aztertu ondoren, ateratako ondoriorik inportanteenak azalduko ditugu.

- a) Familia-eredu ezberdinetan bizi diren ikasleen kopurua gero eta handiagoa da, eta beren konfigurazio eta funtzionatzeko moldeak aldakorrak eta anitzak dira.
- b) Horiek guztiek ez dute zertan familia nuklearraren ezaugarriak izan, eta sarri askotan aldaketa azkarrei egin behar izaten diete aurre.
- c) Ezaugarri horiek konplexutasun handiagoa ematen diete, baina inolaz ere ez dute baztergarri edo arazo sortzaile izan beharrik. Golombokek (2006) azpimarratu duenez, familiaren bizi-kalitateak dauka eragin-indarra, eta ez horrenbeste beraren egiturak.
- d) Hezitzaileok garbi izan behar dugu familia guztien zikloan une latzak izaten direla: harrera edo adopzioaren garaian, gurasoen berreizketan, etorkinen iritsi berriak egokitzeko garaian, eta abar. Kasu horietan gertatzen dena ebaluatu ondoren, zailtasunei aurre egiteko neurri prebentiboak edota terapeutikoak martxan jartzea komeni da.

- e) Familia mota ezberdinak zuzenean ezagutzeak eragina dauka be-
raiekiko errespetuan eta ezagutzan. Eskola eremuan, familian ber-
tan edo lagunen artean, eredu ezberdinekin elkarrekin bizi izateak
eragina du familiaren kontzeptuaren eraikuntzan, ezagupena, sen-
sibilizazioa eta aniztasunaren onarpena bultzatzen baititu.
- f) Komunikabideek eta teknologia berriek gizarte eta familien errea-
litateari buruzko begirada berritua eman beharko lukete, normalta-
sunaren ikuspuntutik eta egunerokotasunaren barnean. Lan horretan
hasi baino lehen, esku artean dugun gaiarekin batera agertu ohi di-
ren konnotazio ideologikoak hartuko ditugu kontuan, sarri askotan
gaia lantzea oztopatzen baitute.
- g) Umearen garapena kontuan harturik, irakasleak ezinbestekoa du
bere familiaren testuingurua ezagutzea, errespetatzea eta normalta-
sunez jorratzea eguneroko bizitzan eta eskolako dinamikaren bar-
nean (curriculumaren arlo ezberdinetan, metodologia anitzekin, es-
kolako jardueren antolaketan, eta abar). Irakasle kontzientziatuek
familiarren errealitateari erantzuten diote. Baina, hezkuntza-erakun-
deetatik hasita, ez da gehiegi egiten sistematikotasunez. Horreta-
rako beharrezkoak dira, besteak beste, planifikazioa, prebentzioa
eta lana erraztu ditzaketen protokoloak, erakundeen laguntza eta
materialak.
- h) Familiarren aniztasunaren aurrean gurasoen eta hezitzaileen kon-
tzentzia transmisioaren hasiera da. Hori dela eta, familiarren ingu-
ruan sensibilizazioa, hausnarketa eta eztabaida bultzatzeko ezin-
besteko organo eta jarduerak guraso eskolak, tutoretza eta eskolako
orientazioa dira.
- i) Curriculumaren neurriei dagokienez, hauexek azpimarratuko ge-
nituzke: a) gaia zeharka lantzea, proiektuka edota arlo jakin ba-
teko programazioaren baitan, betiere, curriculum proiekturen barne;
b) material pedagogiko ugari erabiltzea: dokumentalak, ipuin eta
testu literarioak, teknologia berriak, jokoak; eta abar; c) metodolo-
gia eta ekintza askotarikoak eskaintzea: hitzaldiak, eztabaidak, el-
karrizketak, antzerkiak, lan taldeak, eta abar.

Beraz, umeen hezkuntzarekin konpromisoa dugun pertsona guztiok
badugu zereginik familiarren aniztasunaren aurrean: batzuek zuzeneko ira-
kaskuntzan edota gurasoei lagunduz, beste batzuek ezagutza eta errespetua
bultzatzen duten prestakuntza eta neurri administratiboak abiaraziz. Be-
tiere, gaur egungo familiarren errealitateari begirada berriarekin hurbilduz.

Jasotze-data: 2009/08/17
Onartze-data: 2009/12/10

The revised bibliography on inclusive schools leads us to consider interculturality and the physical and intellectual diversity as bases of living together and learning. But on few occasions, the different models of family are studied as a diversity factor which should be taken into consideration. The intention of the article is to make us to reflect on the transformations that have taken place in the family relations and structures, and their importance in the school environment. The social changes that have taken place in the last decades in Spain, related to the size and configuration of homes, the roles played by different family members, the new values and functions of the family, the legislative transformations and the contribution of the welfare state, have brought about the proliferation of the diversity of family models (monoparental family, adoptive family, homoparental family, reconstituted family, etc.). The school, as an essential education environment, needs to know and respond to the new needs of these families, starting from the basic attitude of respect and proposing concrete education measures of curricular, reflective and formative character, but, above all, creating a common education project with the diversity of the existing family structures.

Keywords: *Family models. Included school. Educational community. Hidden curriculum. Life cycle.*

La bibliografía revisada acerca de la escuela inclusiva, nos lleva a la consideración de la interculturalidad y la diversidad física e intelectual como bases de la convivencia y del aprendizaje. Pero en pocas ocasiones son estudiados los distintos modelos de familia como un factor de diversidad a tener en cuenta. El artículo pretende hacernos reflexionar sobre las transformaciones que se han dado en las relaciones y en las estructuras familiares y su trascendencia en el entorno escolar. Los cambios sociales de las últimas décadas en España relacionados con el tamaño y configuración de los hogares, los roles desempeñados por los distintos miembros, los nuevos valores y funciones de la familia, las transformaciones legislativas y la intervención del Estado de Bienestar, han tenido como consecuencia la proliferación de diversidad de modelos de familia (monoparentales, adoptivas, homoparentales, etc.). La escuela, como entorno educativo esencial precisa conocer y responder a las nuevas necesidades de estas familias, partiendo de una actitud básica de respeto y proponiendo medidas educativas concretas de carácter curricular, reflexivo, formativo, pero, sobre todo, creando un proyecto educativo común con la diversidad de estructuras familiares existentes.

Palabras clave: *Modelos de familia. Escuela inclusiva. Comunidad educativa. Curriculum oculto. Ciclo vital.*

La bibliographie révisée à propos de l'école inclusive nous conduit à prendre en considération le facteur interculturel et la diversité physique et intellectuelle comme les bases de la cohabitation et de l'apprentissage. En de rares occasions, les différents modèles de famille sont étudiés comme un facteur de diversité à prendre en ligne de compte. L'objectif de cet article est de nous faire réfléchir sur les transformations survenues sur les rapports et les structures familiales ainsi que sur leur transcendance dans l'environnement scolaire. Les changements sociaux survenus ces dernières décennies en Espagne et liés à la taille et à l'organisation des foyers, aux rôles joués par les différents membres, aux nouvelles valeurs et fonctions de la famille, les transformations législatives et l'intervention de l'État sur le bien-être ont eu pour conséquence le développement de la diversité des modèles de famille (monoparentales, adoptives, homoparentales, etc.). L'école en tant qu'environnement éducatif essentiel exige de connaître et de répondre aux nouveaux besoins de ces familles, en partant d'une attitude élémentaire de respect et en proposant des mesures éducatives concrètes à caractère curriculaire, réflexif, formatif mais surtout en créant un projet éducatif commun vis-à-vis de la diversité des structures familiales existantes.

Mots clés: Modèles of famille. École inclusive. Collectivité éducative. Curriculum oculte. Cycle de vie.

BIBLIOGRAFIA

- Agintzari (2006). *Adoptia 2. Adopzio ondorengo gidaliburua hezkuntza-arloko profesionalentzat eta gizarte-eragileentzat: Hezkuntza-gakoak* Vitoria-Gasteiz: Eusko-Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzua
- Aguado, L. (2008). *Modelos de familia y educación*. Nafarroa: Psicología eta Pedagogía Saila. Nafarroako Unibertsitate Publikoa. (Argitaragabe)
- Alberdi, I. (1999). *La nueva familia española*. Madril: Taurus.
- Artola, G. (2004). «Familia ereduak eta eskola». *Hik hasi* 84 (6),8-13
- Cea, M. A. (2007). *La deriva del cambio familiar. Hacia formas de convivencia más abiertas y democráticas*. Madril: Centro de Investigaciones Sociológicas.
- CTROADI Tomelloso (2009) *Medidas Organizativas y curriculares de atención a la diversidad desde una perspectiva inclusiva*. <http://edu.jccm.es/cpr/valdepenas/index.php> 2010ko urtarrilaren 15an kontsultatua.
- Flaker, L. (2005). *Las políticas sociales en una perspectiva comparada*. Bartzelona: «La Caixa» Fundazioa.
- Golombok, S. (2006). *Modelos de familia: ¿Qué es lo que de verdad cuentan?* Bartzelona: Grao.
- González M. M., Gutierrez B., Sánchez, Y. eta Acana Elkarte (1997) *Familias diversas, familias felices*. Sevilla: Instituto Andaluz de la Mujer.
- González, M. M. *Nuevos modelos familiares*. www.felgtb.org/files/docs/44f51fe7a8ba.pdf. 2010ko urtarrilaren 15an kontsultatua.

- Instituto de Política Familiar (2008). Evolución de la familia en España 2007. www.ipfe.org/Informe_Evolucion_de_la_Familia_en_Espana_2007_def.pdf. 2010ko urtarrilaren 15an kontsultatua.
- Martinez, R. (2007). *La investigación en la práctica educativa: Guía metodológica de investigación para el diagnóstico y evaluación en los centros docentes*. Madril: Hezkuntza eta Zientziako Ministerioa.
- Meill, G. (2006). *Padres e hijos en la España actual*. Bartzelona: «La Caixa» Fundazioa.
- Rodrigo M. J. eta Palacios J. (2001) (Koordinatzaileak). *Familia eta giza garapena*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Rodriguez, N. (2008) *Educación desde el locutorio*. Bartzelona: Plataforma Editorial.
- Torío, S. (2003). *Estudio socioeducativo de hábitos y tendencias de comportamiento en familias con niños de educación infantil y primaria de Asturias*. Oviedoko Unibertsitatea.